

## 130 zk. 2023ko abendua

Beno, hauteskundeak igaro dira dagoeneko, eta galtzeko astirik gabe, emaitzei buruzko hausnarketa egin eta lanean hasi behar gara hauteskunde propagandan esaten zena betetzeko. Lehenik eta behin, LABen hautagai zerrendari botoa eman dioten pertsonei eskerrak emateko aprobetxatu nahi genuen, beren botoarekin eredu sindikal desberdin baten alde egin baitute, non denok berdin kontatzen baitugu, ez baitira bereizten afiliatuta dauden eta ez daudenen artean. Kolektibitatearen alde egiten duen eredu baten alde, inor kanpoan ez uzten saiatuz, lan eskubideak plantillakoak direlako eta ez soilik afiliaziokoak. TRGn langile gehienak ez daude afiliatuta, LABek lagundu eta entzun egin die ahal izan dugun guztietan eta hala jarraituko dugu egiten, ez botoa eskatzen zaienean bakarrik. Gure afiliazioari ere eskerrak eman nahi dizkiogu. Izan ere, bere parte hartzearekin eta militantziarekin, TRGko atal sindikal sendoa gara, nahiz eta bat baino gehiagori ez gustatu...

# ESKERRIK ASKO!!!

Teknikarien eta espezialisten ikastetxeen emaitzek emandako datuak:

	TEKNIKARIAK				ESPEZIALISTAK			
	BOZKAK		%	ORDEZK.	BOZKAK		%	ORDEZK.
<b>LAB</b>	36	-2	%20,3	1	93	+2	%19,02	3
<b>ELA</b>	48	-7	%27,1	2	183	-34	%37,42	6
<b>UGT</b>	51	-18	%37,1	2	104	+34	%21,27	3
<b>ESK</b>					59	-2	%12,07	2
<b>CCOO</b>	34	+18	%19,2	1	34	-1	%6,95	1

Eta horrela geratzen dira emaitzak orokorrak:

	<b>GUZTIRA</b>			
	<b>BOZKAK</b>		<b>%</b>	<b>ORDEZKARIAK</b>
<b>LAB</b>	129	=	%14,9	4
<b>ELA</b>	231	-41	%26,7	8
<b>UGT</b>	151	+12	%17,47	5
<b>CCOO</b>	68	+17	%7,8	2
<b>ESK</b>	59	-2	%6,8	2
<b>ZURIAK</b>	5		%0,5	
<b>BALIOGABEAK</b>	19		%2,1	

Hauteskunde sindikal hauen erroldak (864) 47 langile gehiago izan ditu 2019ko hauteskundearen aldean; hori dela eta, parte hartzearen ehunekoa 4 puntu jaitsi da (%77,08), nahiz eta boto emaileen kopurua oso antzekoa izan, 666 boto emaile (2019an baino boto bat gutxiago).

Atzera begira jarrita, legegintzaldiko azken 4 urte hauek oso gogorrak izan dira TRG osatzen dugun langile guztiontzat; COVID ERTEak, atzerapenen eta hitzarmenaren negoziazioa, eta azkenik, gaur egun pairatzen ari garen ERTE hau (batzuk beste batzuk baino gehiago). Guztion artean suminduta izan den legegintzaldia. Plantillako zenbait sektoretatik, LAB osatzen dugunok denetatik entzun behar izan dugu azken lau urteotan: traidoreak, salduak, takilletan pintatuak, etab. Plantillako sektore horren haserrea atzerapenetan eta hitzarmenaren negoziazioan, negoziazio eraikitzailearen alde egin dugun atal sindikaletan fokatu egin da, baina batez ere LABen. Gu baino inori ere ez traidore giza etiketatu zaigu.

Ba, plantillak hitz egin du eta bakoitzak hauteskunde hauen emaitzak aztertu beharko ditu. LABen kontzientzia oso lasaia dugu, ahalik eta hitzarmenik onena lortzeko lan egin dugu, TRGko langileen baldintzak hobetuz.

Batzordearen osaera kalkulatzeko formulak aplikatzean, atal sindikal bakoitzeko kide kopurua aurreko legegintzaldian bezala geratzen bada ere, argi geratu da plantillak ez dituela gure aurka botatako manipulazio eta kalumnia guztiak sinetsi, eta haiek dira jaisten direnak.

Aipatu behar da, LABentzat argazki polita izango litzatekeelako, kontabilizatu ziren 19 boto baliogabeetatik 5en botoa gure atal sindikalerako izan zirela. LABen bi txartelak gutunazal berean, teknikarien boto berde eta espezialisten boto zuria zeuden. Hauteskunde mahaiek baliorik gabe uztea erabaki zuten, bozketaren asmoa argia izan arren. Esan bezala, guretzat argazki polita izango zen 2019. urteko hauteskundetan baino 5 boto gehiago izatea, baina boto baliogabetzat hartzen diren arren eta errealtateak Batzordearen zenbaketarako balio ez dutela badakigun arren, LABek kontuan hartzen ditu, gure atal sindikalerako, jaso ditugun boto guztiak jarraitu beharreko bidea hau dela erakusten dizkigutenak dira: lana, eraikitzea eta ez suntsitzea, TRGko langilegoa merezi duena.

Gure hauteskunde kanpainan esan bezala, legegintzaldiko hurrengo 4 urteetarako hainbat erronka jarri ditugu mahai gainean. LABentzat lan osasuna erronka handia izango da, arreta jarriko dugu prestakuntzan, tenperatura altuko lanen kontrolean, fabrikako neurketen jarraipenean eta, bereziki, istripuen kontrolean eta neurri zuzentzaileen segimenduan. Halaber, TRGren eta Aiaraldeko prestakuntza zentroen arteko harremanak bultzatu nahi ditugu. Batzordearen barruko harremanak normalizatzeko erronka jarri dugu, nahiz eta ez dagoen gure jarreraren menpe bakarrik, badakigu odol beroko jendea garela, baina listua irensteko erronka jarri dugu, probokazioak badakigu zer nahi duten, harremanak dinamizatu eta enpresa batzordeak behar bezala ez funtzionatzea. Erronka hori fabrikako batzarrentzat ere jarri dugu. Gure ustez, mila aldiz esan dugun bezala, ezinbesteko elementuak dira guztiontzat, informazioa eta iritzia emateko, baina ezin dugu onartu zirku bihurtzea, aldamenekoa bezala ez pentsatzeagatik.

Azkenik, lerro hauek ixten joateko, berriro eskerrak eman nahi dizkizuegu berriro gugan konfiantza jarri duzuen guztioi. Ziur gaude gure aldetik lana, konpromisoa eta dedikazioa ez direla faltako, orain arte bezala edo are gehiago.

# GORA LAB!!!!!!

DANOK BATERA  
SINDIKATU INDARTSU BAT  
IZATEN JARRAITUKO  
DUGU!!!!



**zubitikanpo**

Joan den azaroaren 30ean greba orokorra izan zen. Hainbat kanaletan azaldu dugun bezala, Euskal Herriko mugimendu feministak bultzatu zuen, eta hainbat eragile bat egin genuen, besteak beste sindikatu batzuk.

Nahikoa da begiak pixka bat irekitzea, ohartzeko greba honen aldarrikapenak, zaintza, pentsioak, gutxieneko soldata eta abar langileen eguneroko arazoak direla.

Guztiok aurkitu izan gara, aurkitzen gara edo aurkituko dugu arazo horietakoren bat gure bizitzan zehar. Borrokak aurrera jarraitzen du, inoiz ezin dugu ahaztu gure klasea zein den.